

Katigatutako dortokak.

Cabrera leku pribilegiatua da. Iragan militarrek gehiegizko ustiatzetik babestu ditu uhartea eta bere inguruak.

Baina itsasoko bitsa hiltzen den lekutik urrun jaiotzen da, eta bere bidaiari arazoak zamaten ditu.

Olatuen zurrunbiloetan, biraka dabilta organismo eta partikulak, ur eta gatz molekularak, baita tranpa batzuk ere. Gainazalean ikusten ez ditugunak, baina ikusi ez arren desagertzen ez direnak. Itsasoak dena irensten duela dirudi, eta egia da batzuetan lortzen duela, baina besteetan, arazoak espero ez genituen leku eta moduan agertzen dira berriz.

Egiazko kareta arazo horietako batzuekin topo egin du.

Espezie hau oso ugaria izan da Mediterraneo itsasoan, baina orain bitxikeria bat da. Eta agian laster oroitzapen bat besterik ez da izango. Narrasti honek itsaso zabalean egiten du igeri, baina bere migrazio luzeetan ohikoa du kostaldeetara hurbiltzea. Dortokaren bizitzan zehar itsas milia asko dira, milioika hegal kolpe. Hegal bihurtu dira eboluzioan zehar kelsonio hauen gorputz adarrak, eta horiek bereizten dituzte lurreko eta ur gezatako senideengandik.

Hegalek arraun egiten duten bakoitzean, animaliak elbarri gelditzeko arriskua du.

Zoria markatutako topaketa, - edonori gerta dakioke - noraezean dabilen sare baten hondarrekin.

Hau izan daiteke batere epikoa eta naturala ez den heriotza baten aurpegi plastifikatua.

Beste gizaki bat, hau ere zoriz, bere kideek egindako kaltea osatzera bertatik pasatzen ez bada. Azkenean, espezieak bere akatsak zuzentzea nahikoa balitz bezala.

Dortoka honek zori onarekin egin du topo. Cabreran egiteko askorik ez dagoenez, ejertzitoaren, kostazainen, arrantzaleen eta hauen familien arreta bereganatu du. Guztiak, hiltzeko puntuan egon den dortokari begira.

Behin mordoilo pozoitsutik askatuta, bere lekua itsasoa da. Han tranpa berriak, arrisku gehiago eta mimo gutxiago aurkituko baditu ere. Askatasuna inoiz ez da dohainik, baina badira ordaintzea merezi duten prezioak eta saihestu ezin daitezkeen arriskuak.

Sare hondarrak eta plastikozko poltsak, itsasoarenak ez diren substantziak, dortokentzat kaiola direnak. Paralisi antropomorfikoa, ergela, nahi gabekoa delako, gaiztoa, pentsatu gabekoa. Inork ez du onura edo erosotasunik jasotzen zabor guzti hori itsasoan uztearren. Eta dortoka eder horien heriotza dakar. Olatuen artean, ozeanoak gurutzatuz, planeta apurtxo bat ederragoa egiten duten horien heriotza.

Naturak beti aurkitzen du oreka berri bat, baina benetan espezie baten desagertzeak inori kalte konponezina egiten badio, gizakiari da.